



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko uztailaren 5a

2. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen du Raúl Andrés Cuestaren heriotza, zeina Arbizun izandako lan-istripuan hil baitzen. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.)
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du indarkeriaren biktima guztientzako egia, justizia eta erreparazioa bilatzeko beharrian etiko eta politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.)

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Talde eta elkarte parlamentarioen osaera eserleku kopuruaren arabera. 2019-2023 legegintzaldia (3. or.)
- Talde eta elkarte parlamentarioen eledunak (4. or.)
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak 2019ko uztailaren 1etik aitzina (4. or.)
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen sailkapen-mailei dagozkien ordainsariak 2019ko uztailaren 1etik aitzina (5. or.)
- Foru parlamentarien urteko ordainsari gordinak 2019ko uztailaren 1etik aitzina (5. or.)
- Foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2019ko uztailaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (6. or.)

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen du Raúl Andrés Cuestaren heriotza, zeina Arbizun izandako lan-istripuan hil baitzen.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen du Raúl Andrés Cuestaren heriotza, zeina Arbizun izandako lan-istripuan hil baitzen, eta bere babes eta elkertasuna adierazten dizkie haren familiari eta lagunei, bai eta laneko istripuren bat pairatu duten pertsona guztiei ere.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela eragile guztiak lankidetzan aritzea laneko istripuak ekiditeko prebentzioan. Halaber, enpresei exigitzen die onar dezaten beren ardura dela arau indardunak betearaztea eta prestakuntza eta informazio egokia ematea”. (10-19/DEC-00038).

Iruñean, 2019ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du indarkeriaren biktima guztientzako egia, justizia eta erreparazioa bilatzeko beharrizan etiko eta politikoa.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Alderdi Popularreko eta VOXeko eledunek “ETAren zuritze-ahalegina” dela-eta egindako salaketa onartezinak, eta Foru Parlamentuak pertsona guztien giza eskubideen alde egindako lan etengabea erreibindikatzen du.

– Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du indarkeriaren biktima guztientzako egia, justizia

eta erreparazioa bilatzeko beharrizan etiko eta politikoa, alde batera utzita biktimaren ideologia eta biktima-testuingurua.

– Nafarroako Parlamentuak elkarrizketaren alde egiten du, desdostasun politikoak konpontzeko esparru gisa, zenbait talde politikok politika sistematikoki judizializatzearen alde egiten duten hautuaren aldean” (10-19/DEC-00039).

Iruñean, 2019ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**

**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Talde eta elkarte parlamentarioen osaera eserleku kopuruaren arabera.  
2019-2023 legegintzaldia.**

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOA  
Kide kopurua: **20**

José Javier Esparza Abaurrea  
María Jesús Valdemoros Erro  
Carlos Pérez Nievas López de Goicoechea  
José Suárez Benito  
Yolanda Ibáñez Pérez  
Marta Álvarez Alonso  
Cristina Ibarrola Guillén  
Jorge Esparza Garrido  
Iñaki Iriarte López  
Javier García Jiménez  
María Isabel García Malo  
Pedro José González Felipe  
Alberto Bonilla Zafra  
Raquel Garbayo Berdonces  
Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia  
Miguel Bujanda Cirauqui  
Isabel Olave Ballarena  
Francisco Pérez Arregui  
María Elena Llorente Trujillo  
Ángel Ansa Echegaray

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA**  
TALDE PARLAMENTARIOA  
Kide kopurua: **11**

María Victoria Chivite Navascués  
Ramón Alzórriz Goñi  
María Inmaculada Jurío Macaya  
Carlos Gimeno Gurpegui  
Ainhoa Unzu Garate  
Bernardo Ciriza Pérez  
Nuria Medina Santos  
Antonio Javier Lecumberri Urabeyen  
María Aranzazu Biurrun Urpegui

Carlos Mena Blasco  
Patricia Fanlo Mateo

**GEROA BAI**  
TALDE PARLAMENTARIOA  
Kide kopurua: **9**

Uxue Barkos Berruezo  
Unai Hualde Iglesias  
Koldo Martínez Urionabarrenetxea  
María Roncesvalles Solana Arana  
Manu Ayerdi Olaizola  
Pablo Azcona Molinet  
Isabel Aramburu Bergua  
Mikel Asiain Torres  
Jabi Arakama Urtiaga

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOA  
Kide kopurua: **7**

Bakartxo Ruiz Jaso  
Adolfo Araiz Flamarique  
Laura Aznal Sagasti  
Maiorga Ramírez Erro  
Patricia Perales Hurtado  
Miren Aranoa Astigarraga  
Domingo González Martínez

**NAFARROAKO AHAL DUGU**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA  
Kide kopurua: **2**

Mikel Buil García  
Ainhoa Aznárez Igarza

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE MISTOA  
Kide kopurua: **1**

María Luisa de Simón Caballero

**Talde eta elkarte parlamentarioen eledunak.****NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOA**

José Javier Esparza Abaurrea jauna

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****TALDE PARLAMENTARIOA**

María Victoria Chivite Navascués andrea

**GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOA**

Uxue Barkos Berruezo andrea

**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOA**

Bakartxo Ruiz Jaso andrea

**NAFARROAKO AGAL DUGU****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA**

Mikel Buil García jauna

**IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOA**

María Luisa de Simón Caballero andrea

**Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak 2019ko uztailaren 1etik aitzina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2019ko ekainaren 24an, Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak proposatu du, araudi indarduna aplikatuz, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2019ko uztailaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak ehuneko 0,25 eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraiki, ERABAKI DA:

**1.** Onestea 2019ko uztailaren 1etik aitzina behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak honako hauek izanen direla:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 53.868,78 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 40.522,16 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 32.788,56 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 32.788,56 euro.

**2.** Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen sailkapen-mailei dagozkien ordainsariak 2019ko uztailaren 1etik aitzina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2019ko ekainaren 24an, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak proposatu du, araudi indarduna aplikatuz, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen sailkapen-mailei dagozkien 2019ko ordainsariak % 0,25 eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraiki, ERABAKI DA:

1. Onestea sailkapen-maila bakoitzaren hasierako soldatak 2019ko uztailaren 1etik aitzina. Hauek dira, hain zuzen ere, urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	26.897,36 euro
B	22.627,78 euro
C	18.770,64 euro
D	16.347,80 euro
E	14.379,68 euro.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru parlamentarien urteko ordainsari gordinak 2019ko uztailaren 1etik aitzina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko uztailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2019ko ekainaren 24an, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak proposatu du, araudi indarduna aplikatuz, foru parlamentarien ordainsariak ehuneko 0,25 eguneratzea.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Onestea lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 59.154,06 eurokoa izanen dela 2019ko uztailaren 1etik aitzina.

2. Onestea lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 52.580,08 eurokoa izanen dela 2019ko uztailaren 1etik aitzina.

3. Onestea lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 44.365,30 eurokoa izanen dela 2019ko uztailaren 1etik aitzina.

4. Onestea lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 39.434,92 eurokoa izanen dela 2019ko uztailaren 1etik aitzina.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2019ko uztailaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko uztailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2019ko ekainaren 24an, Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak proposatu du, araudi indarduna aplikatuz, foru parlamentarietara bertaratzearen truke jasoko dituzten 2019ko ordainsariak % 0,25 eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI da:

**1.** Onestea foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2019ko uztailaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak. Hauek dira modalitate eta zenbateko horiek:

– 143,42 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietara.

– 169,60 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietara.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



